

## Carmen Adarraga Elizaran Parkea

1921eko uztailearen 5ean jaio zen Carmen Adarraga Elizaran, hamabi anai-arrebez osatutako Hernaniko familia zabal batean. “Adarragatar kirolariak” ezizenez ziren ezagunak, kirolean oso abilak zirelako gehienak. Juan Bautista anaia, adibidez, Londreseko Olinpiar Jokoetan parte hartzera iritsi zen eta hari zor dio Hernaniko kirol klubak bere ikurrean Nazioarteko Batzorde Olinpikoa ordezkatzeko duten bost uztaiak erakusteko aukera.

Talde kirola zuen gustukoan Carmen Adarragak. Saskibaloian Hernanin izandako lehen taldea berak sortu zuen, gizonen talderik ere ez zegoenean. Espainiako saskibaloiko selekzioaren historian lehengo kapitaina izan zen Carmen eta hiru aldiz izan zen Espainiako txapeldun saskibaloian, Donostiako emakumezkoen taldearekin. Eskubaloiko eta belar hockeyaren ere oso jokalaria izan zen, Espainiako bi selekzioetan aritu zen eta estatuko txapeldunorde izatera heldu zen eskubaloian.

Carmen bizi izan zen garaian emakumeek kirola egitea oso gaizki ikusita egoteaz gainera, ondoren ezarriko zen Erregimen Frankista kirola debekatzearaino heldu zen. Baina Carmenen izaera kirolzale honi esker ordura arte gizonena zen esparrua menderatzea lortu zuen. 2016tik emakume kirolariak ikusaraztea helburu duen Gipuzkoako Aldundiaren sari bati ematen dio izena Carmen Adarragak. Orain arteko Carmen Adarraga sariak Coro Fuentes atletarentzat, Mari Ayestaran belar hockey entrenatzailearentzat, 1917 eta 1980 artean profesionalki jokatu zuten emakume erraketistarentzat, Nieves Alza Txingudi saskibaloiko taldeko lehendakariarentzat, Arantxa del Puerto Astiz futbolariarentzat eta Carmen Diez Mintegi antropologoarentzat izan dira.

Hernaniko herriak ere, Carmen Adarragaren ekarpena goraipatu eta denboran mantentzeko helburuz, bere izena jarri dio atletismoko pisten ondoan dagoen parkeari.

Carmen kirolaria izateaz gainera, emakume langilea ere izan zen. Anai-arreben artean, Carmen izan zen aitek sortutako Adarraga gozo-denda entzutesuaren administrazioarekin jarraitu zuena, eta horrek lotu zuen Hernanirekin bere bizitza osoan. Hasiara batean Adarraga txokolateak ziren egun Urbietan kalean dagoen gozodenda maitatuaren sorburua. Baina Carmen ez zen bakarrik familiaren negozioan aritu, Irazusta zinemako txartel-saltzaile ere izan zen eta Hernaniko Kale Nagusiko janari-denda bat ere izan zuen. Oso emakume langilea izan zen, eta bost seme-alabaren ama ere izan zen Carmen. Haren seme-alabek ere amak kirolarekiko zuen pasioa jaso zuten.